EUSKARAREN HILABETEA
2021EKO MARTXOA

Dela gora dela behera,

euskarak beti aurrera

LH5 - DBH
ikasleen lanak

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

AGURRA

Birus ziztrin batek gizartea berrantolatzera behartu gaitu eta hor gabiltza, errealitate berri honetan gure bizitza eta desioak non kokatu ezinean. Baina, ez amore eman! Tunel ilun honen amaieran argia dago eta, luzea badirudi ere, uneren batean iritsiko gara.

Gakoa ez da iritsiko ote garen ala ez, baizik eta nola iritsiko garen. Gure erantzukizuna da tunelaren amaierara ahalik eta indartsuen iristea, gure esentzia galdu gabe eta elkarrenganako loturak galdu gabe. Pandemiak distantzia soziala mantentzera behartzen gaitu, eta gai serioa da, erabat, jende asko bizitza eta osasuna galtzen ari direlako bidean.

Zorionez, gure gizarteak oinarri sendoak ditu.
Elkartasunak, boluntariotzak, besteei laguntzeko gogoak, mundu hobeagoa eraikitzeko motibazioak eta kontzientzia kolektiboak gure nortasuna errotzen dute eta herri gisa kohesionatzen gaituzte. Are gehiago, euskara da kohesio hori ahalbidetzen duen tresna miragarria.

Euskara komunikatzeko tresna bat baino askoz gehiago da. Euskara kutxa bat izango balitz, barruan gordeko lituzke herri honen kultura, ohitura, pentsamolde, ideia, amets, historia, oraina, iragana, etorkizuna… Atzo, gaur eta bihar euskara dakiten eta ikasten duten pertsona guztiak lotzen dituen hari ikusezina da.

Zaindu dezagun denon artean. Euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egiten badugu, geure herriaren eta gizartearen etorkizuna aberastuko dugu eta bidean gu geu galtzen ez garela ziurtatuko dugu.

Tunelaren amaieran euskaraz bizi eta elkar ikusiko dugulakoan, agur bero bat!

IRUNERO

ARGITARATZAILEA:
837 Comunicación y Publicidad S.L.

MAKETAZIOA: Ainara Berges

LEGE GORDAILUA:
SS-230-94

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

AURKIBIDEA

BELASKOENEA
- Ekosistemak 4. or.

DUNBOA
- Euskaraldia 12. or.

EGUZKITZA
- Bertsoak 5. or.
- Alardea 14. or.
- Artea hezkuntzan 22. or.

ELATZETA
- Plastifisharen kostera 8. or.

EL PILAR
- Gure bertsoak 6. or.
- Vieux Boucau 19. or.
- Teknologia eta gazteak 20. or
- “Influecer-ek” benetan influentziatzen dute? 21. or.

HIRUBIDE
- Gabonetako magia 15. or.

IRUNGO LA SALLE
- Euskararen sorrera txantxangorri herria 9. or.

LEKAENEA
- Geografia lantzen 10. or.

SAN VICENTE DE PAUL
- Hizkuntza autobiogradia 11. or.
- Nire txisteak 16. or

TOKI ALAI
- Zentumenen basoa 13. or.
- Euskara, jalgi hadi 13. or.
- Zuzendari kaskarra 17. or.
- Ana eta dragoiaren kondaira 18. or.

TXINGUDI
- Ikerketa familien lankidetzarekin 7. or.
- Basoa (2030 Agenda) 23. or.

EKOSISTEMAK

5.mailakoak Ingurunen ekosistemak landu ditugu. Gauza asko ikasi ditugu eta gaia bukatzerakoan, taldeka eskulan hau egin dugu. Kontatuko dugu nola egin dugun:

- Taldeetan jarri gara: 3 edo 4 ikasle talde bakoitzean.
- Zapata kutxak ekarri ditugu.
- Kutxa bakoitzean ekosistema bat egin dugu.
- Honako materiale hauek erabili ditigu: paperak, plastilina, harriak, goroldioa, hostoak.

Lana denon artean banatu genuen eta kutxak oso politak geratu zirenez pentsatu genuen guk ikasitakoa bigarren mailako ikasleekin konpartitzea.

Egun batean beraien gelara joan ginen eta azalpena egin genien. Bigarren mailakoek oso politak direla esan zuten eta txalotu ziguten. Hementxe daude gure ekosistemak:

ITSASOA

ZAID-RUHAN-JULEN-LUCÍA

IBAIA

NAROA-YOUSSEF-HIBA

BASOA

SARAY-EIDER-ADAM-NAYELI-

BASAMORTUA

JUNIOR-ELVIS-GUSTAVO-YANDER

Konfinamendu garaian Eguzkitza eskolako 5.mailako ikasleek egindako bertsoak
(Gaur egun ikasle hauek 6.mailan daude)

Gaia: HARRY POTTERREN FILMETAKO PERTSONAIAK: KONFINATUAK
Doinua: Ama begira ezazu

LUNA LOVEGOOD

Birus batengatikan
Gure etxean gaude
Ta Hogwarts ikastolan
Berdin berdin daude

Han Luna izeneko
Ikasgela dago
Eta bere ikastolan
gordeta zeharo

Gaur Luna pozik dago
Bigarren fasean
Animaliak zaintzen
Dago Luna bertan

Egileak: Maren, Odei, Unai eta Vega

SNAPE

Asnapa irakaslea
Jira eta buelta
Aurten Howartsen dena
Ezberdina da eta

Jenio txarra eta
Tunika ilunduta
Howartsen gelditu da
Snape giltzatuta

Aspertuta dagoenez
Badaki zer egin
Gryffindoreri berriz
Puntu gabe ze min!

Hor dauden beste umeekin
Ez daki zer egin
Konfinamendu honekin
Ez baita atsegin

Egileak: Ander, Ariadna, Noa eta Oier

RON WEASLEY

Ronek itxialdian
Magia egiten du
Eta bere lagunak
Astero aspertu

Ronek du ile motza
Eta gorria
Hortzak txuriak eta
Barita txikia

Bigarren fase honetan
Ron berriro kontent
Eskolara joan eta
Gustura jolasten

Egileak: Dara, Demba, Unai eta Ani

FRED ETA GEORGE WEASLEY

Klasean betikoa
Aspergarriak dira
Baina behintzat Quidditchera
Jolastu ohi gara

Etxeko lan pila bat
Ditugu egiteko
Eta pila bat filma
Ere ikusteko

Gure karameluak
Egiten ditugu
Eta jendeak diru
Asko ematen digu

Txantxa batzuk egiten
Dibertitzen gara

Eta bederatzietan
Denok afaltzera

Hetxizoak ikasi
Beharko dituzu
Bestela ezingo dugu
Roneri txintxatu.

Egileak: Irati, Oier, Aimar eta Mara

HERMIONE

Hermione mago ausarta
Eta jakintsua
Bere makilarekin
Magia egiten doa

Bere lagunak dira
Ron eta Harry ere
Baina konfinatuak
Daude ikusi gabe

Maiatza bukaeran
Fasez aldatu da
Ta orain denak pozik
Goazen jolastera

Oso gustuko dugu
Guk magia jada
Baina eskolatik kanpo
Debekatua da.

Egileak: Ekain, Ane, Ioritz, Alain eta Maialen

HARRY

Harry izenarekin
Bertsoa egiteko
Hori izan da erronka
Taldearentzako

Bertsoa idazteko
Harry izenarekin
Denon artean behar
Genituen egin

Pozik idatzi dugu
Denen aukerako
Bertsoak kantatzea
Denak alaitzeko

Gu bertsoa asko eginda
Goaz eskolara
Egoera pasata
Alaituko gara

Egileak: Araitz, Adrian, Evelina, Julen eta Oihan

GURE BERTSOAK

MUSIKA ETA IRAKURKETA EUSKARAZ

GURE FAMILIETAN LH 5-LH6.

Zer musika mota entzuten da euskaraz gure etxeetan? Eta zer irakurketa egiten dira euskaraz?

Bi galdera horien erantzuna ezagutzeko, ikerketa txiki bat egin dugu...eta hauek dira, familien lankidetzari esker, lortutako emaitzak.

GEHIEN ENTZUTEN DEN MUSIKA:				
TALDEAK	ABESLARIAK	ABESTIAK	MUSIKALAK	BESTELAKOAK...
☑ HERTZAINAK ☑ EN TOL SARMIENTO ☑ KEN ZAZPI	☑ BENITO LERTXUNDI ☑ MIKEL LABOA	☑ ALDAPAN GORA ☑ MAITE ZAITUT ☑ LAU TEILATU GAINEAN ☑ AITORMENA ☑ ZORIONAK ZURI	☑ GOAZEN	☑ EUSKADI GAZTEA

GEHIEN IRAKURTZEN DENA:			
LIBURUAK	KOMIKIAK	ALDIZKARIAK	EGUNKARIAK
☑ EUSKAL MITOLOGIA ☑ NUR ☑ OBABAKOAK ☑ KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL	☑ ASTERIX ETA OBELIX	☑ ARGIA ☑ BERRIA	☑ BERRIA

Eskerrik asko, familiak, zuen laguntzagatik!!

PLASTIFISHAREN KOSTERA

2019-2020 ikasturtean, Elatzetako 5. mailakoek proiektu berritzaile batean parte hartzeko aukera izan genuen, “Plastifisharen kostera” proiektuan alegia. Mater Ontzi Museo Ekoaktiboaren eskutik heldu zen, Ternuaren laguntzarekin. Gipuzkoako kostaldeko hondakinen arazoei aurre egiteko proiektua da eta bere helburu nagusia, itsas hondakinen arazoan herritarrak inplikatzea litzateke. Horregatik, arazoaren hasierara jo genuen, hau da, zaborra itsasora iritsi baino lehen, ibaietan pilatzen da. Eta horretarako, ekintza ezberdinak egin genituen eskolan:

- Gelan gaiaz jardun eta errealitatea ezagutu.
- Bidasoa ibai arroan hondakinak bildu, sailkatu eta pisatu.
- Aurkitutako materiala erabiliz 2020-2021 ikasturteko logo lehiaketan parte hartu.

Aurtengo ikasturtean, eskolatik gertu dugun Altzubideko errekara joan ginen, bertako hondakinak jasotzera. Ordubete eskas batean, 25 kilogramo zabor bildu genituen.

Oso gogorra izan da errealitatea zein den ikustea, baina behintzat Elatzeta ikastetxeko ikasle zein irakasle sentsibilizatzeko balio izan du proiektuak. Gainera, parte hartzeagatik, Ternuak material berziklagarriekin egindako “Plastifisharen kostera” kamiseta bana jaso zuten ikasleek. Urtero, Altzubideko erreka garbitzera joateko konpromezua hartu dugu. Ea denon artean gure kostaldea hobeto zaintzeko gai garen!

Ikasleen inpresioak:

- Ez genuen espero, hainbeste zabor bilduko genuenik!
- Zein zikina den jendea!
- Nola bota dezakete guzti hori errekara?
- Hemendik paseatzen dabilen jendeari, ez dio lotsik ematen hau horrela egoteak?
- Ez badugu planeta guk zaintzen, zeinek zainduko du?

Argazkien azalpenak:

1. Prest garbiketari hasiera emateko.
2. Altzubideko errakaren bazterretan zeuden hondakinak jasotzen.
3. Jasotako hondakinak sailkatzen eta pisatzen.

EUSKARAREN SORRERA TXANTXANGORRI HERRIAN

Duela urte asko Euskal Herriko herri batean Aitziber izeneko neskatxo bat, Txantxangorri herrian, bizi zen. Herrian, euskara ez zuten erabiltzen. Aitziberrek euskara zekien baina ez zuen erabiltzen eta ahazten hasi zitzaion. Egun batean Aitziber ibilaldi bat egitera joan zen. Halako batean txantxangorri bat agertu zitzaion. Aitziberrek ez zuen sinisten bere herrian duela mila urte txantxangorriak desagertu zirelako.

- Benetakoa zara ?- galdetu zuen Aitziberrek.
- Bai benetakoa naiz -erantzun zion txantxangorriak.
- Euskaraz hitz egiten badakizu? -galdetu zuen txantxangorriak.
- Bai, baina ahazten hasi zait ez erabiltzeagatik- esan zion Aitziberrek.

Txantxangorriak euskara gehiago ikasten lagunduko ziola esan zion. Aitziberrek, etxera itzultzerakoan ama aurkitu zuen atean zain .

- Non ibili zara Aitziber?- galdetu zion amak
- Ibilaldi bat egitera joan naiz, ama. - Erantzun zion Aitziberrek.

Gaua iritsi zen eta Aitziber ohera joan zen. Bat-batean txori baten kantua entzun zuen Aitziberrek. Leihotik etortzen zen soinua. Leihoa irekitzerakoan txantxangorria aurkitu zuen.

- Zer egiten duzu hemen?- galdetu zuen Aitziberrek.
- Euskara ikastera etorri naiz -erantzun zion txantxangorriak

Bat-batean Aitziber amaren pausoak entzuten hasi zen.

- Ezkutatu azkar!-esan zuen Aitziberrek

Txantxangorria ohe azpian ezkutatu zen.

- Norekin hitz egiten ari zara Aitziber? -galdetu zuen amak.
- Inorekin- erantzun zuen.

Hurrengo goizean Aitziber esnatu, jantzi, gosaldu eta mendira joan zen txantxangorriaren bila. Aurkitu zuenean euskarazko klaseak hartzen hasi zen.

Etxera itzultzerakoan amak esan zion:

- Alkateak bihar herriko plazan, hamabietan, elkartzeko esan du eta zu nirekin etorriko zara.
- Ongi da ama, zurekin joango naiz- erantzun zuen Aitziberrek gogorik gabe.

Hurrengo egunean herri guztia zegoen.

Halako batean txantxangorria agertu zen. Herri guztia harrituta geratu zen. Txantxangorriak zergatik euskaraz hitz egin behar zen azaldu zuen . Alkateak egun batzuk pentsatu zuen eta azkenean euskaraz hitz egitea utzi zuen.

Hortik aurrera Abenduaren 3an Euskararen eguna ospatzen da Txantxangorri herrian.



Andrea Mancisidor Garmendia

6.mailakoak

GEOGRAFIA LANTZEN MAPA MENTAL ERRALDOIA SORTU DUGU

2020-2021 ikasturtea

Hizkuntza autobiografia

Nire amona Irunen jaio zen eta euskaraz hitz egiten zuen, aitona, ordea, Abilakoa zen eta gaztelaraz hitz egiten zuen. Amonak euskaraz bakarrik hitz egiten zuen etxean eta aitona ezagutzean gaztelera ikasi zuen. 4 seme-alaba izan zituzten eta bik bakarrik hitz egiten dute euskara: osabak eta nire amak.

Nire ama Hondarribiko San Jose ikastetxera joan zen ikastera eta A ereduan ikasi zuen, aita ,berriz, Iruneko ikastetxe batera joan zen. Aitak nahiko ulertzen du euskara baina, hitz egiteaz ideiarik ez.

Ni amari esker nahiko ondo moldatzen naiz euskararekin, eta nire euskara maila hobetzeko familia- barnetegira joaten gara urtero, abuztuan. Oso ondo pasatzen dut eta lagun mordo bat egiten ditut urtero giro euskaldun batean. Hori bai altxorra dela! Gainera ama oso konprometitua dago euskararekin eta ekintza pilo bat antolatzen ditu urtean zehar, bai helduentzat, baita haurrentzat (tailerrak, jolasak, klaseak…) ere.Orain buruz behera dabil euskaraldiaren antolakuntzarekin.

Orain dela bi urte, nik ere aukera izan nuen euskaraldiaren “antolakuntzan” parte hartzeko , hori bai ,maskota bezala. Nire anaiak eta biok ahobizi eta belarriprest panpinak jantzi genituen izena emateko kanpainan. Zer ondo pasa genuen larunbat hartan!

Etorkizunean ama izatea gustatuko litzaidake eta nire seme-alabei euskaraz hitz egitea.

Julene Gómez LH 6.B



Zentzumenen basoa

20/21 ikasturte berezi honetan irakasleek proiektu berri bat proposatu digute: Zentzumenen Basoa osatzea.

Gure ikastetxearen inguruan basotxo bat dugu. Orain arte, ezin izan gara basora sartu: zikina zegoen, prestatu gabe...Baina, aurten leku falta dela eta basoa atontzea pentsatu genuen.

Hasiera batean jolasgarairako eremu bihurtzea zen helburua. Baina, konturatu gara basoa bera altxor bat dela eta ikastetxe gutxik daukatela baso bat haien eremuan. Horregatik, basoari duen garrantzia eman nahi diogu eta aprobetxatuz gure ikastetxea STEAM proiektuan sartu dela, basoa bihurtu dugu ikasturte honetako proiektu nagusia. Irakasle guztien laguntzaz, bosgarren eta seigarren mailako ikasleok basoan hainbat gauza egingo ditugu:

1. Bertako zuhaitzak sailkatu eta azalpen txarteltxoak jarriko ditugu.

2. Basoa bisitatzeko ibilbide bat prestatu eta seinaleak jarriko ditugu.

3. Lehen eta bigarren zikloko ikasleentzat bisita gidatuak egingo ditugu.

4. Basoan zentzumenak lantzeko txokoak egingo ditugu.

5. Web orri bat sortuko dugu gure basoa denok ezagutzeko aukera izan dezazuen.

Oso proiektu polita da eta ilusio handiz ekin diogu. Kontatuko dizuegu zer moduz goazen!

EUSKARA, JALGI HADI!

Euskara,
jalgi hadi kalera.

Jendeak euskaraz jakin arren,
ez dira hizkuntza honekin komunikatzen.
Nahiz eta euskaraz galdetu,
ez dute euskaraz erantzuten.

Euskara,
jalgi hadi eskolara!

Euskaraz hitz egingo bagenu,
oro ahaleginduko bagina,
ikasiko genuke,
Euskara zer den!

Euskara,
jalgi hadi futbolera!

Zenbait jendek uste zuten
euskaraz ezin zela jolastu.
Orain baietz dira konturatu,
eta euskaraz dira solastuko!

Euskara,
jalgi hadi pantailara!

Espainolek zuten uste
ezin euskaraz ezer egin,
guk frogatu diegu,
badaukagula kulturan,
serieak etal filmak,
geroz eta hobeak,
ikustaldi mordorekin!

Euskara,
jalgi hadi hodeira!

Gure wifi taupadak
inorenak baino hobeak
euskararengatik
gure mugikorra bezalaxe
ondo gordeta eta salbu
gure bihotz barnean!

Euskara,
jalgi hadi twitterra.

Txori urdin bat dago
nire mugikorrean,
ez legoke gaizki
honek euskaraz txiokatzea!

Euskara,
jaldi hadi XXi. medera.

Lehenengo gamerra
eta gero youtuberra
Eskolako lanak kalera,
bakarrik inporta ruterrak.

DBH 3:
Alex Martin,
Leire Agirrezabala,
Iker Sujar,
Itsaso Lekuona,
Adrian Gonzalez

ARGUDIO TESTUA: ALARDEA

Alardea. Hitzak berak soilik gauza asko ekartzen dizkigu burura. Gaur egun jada tradizio bihurtu den gertaera baten ospakizuna da. Euskal Herriko hainbat lekutan egiten da (edo deitura desberdina daukaten eta antzekoak diren ospakizun/jaiak) eta hainbat desadostasun edo polemika sortu ditu. Betidanik, gizonezkoek bakarrik hartzen zuten parte, baina azkenean, herri eta hiri batzuetan emakumeak ateratzen hasi, eta haiek ere ateratzea normalizatu egin da/zen.

Baina ez denetan. Bi adibide Irun eta Hondarribia dira, eta horietaz hitz egingo dut. Hemen, oraindik ez dute denek begi onez ikusten emakumeak alardean ateratzea, eta ez zait normala iruditzen. Irungo egoera askoz lasaiagoa den arren, ez da nahikoa. Nire ustez, berdintasuna baldin badago gizon eta emakumeen artean, alardean ateratzeko berezko eskubidea izan behar genuke denok, salbuespenik gabe. Nahiz eta aurka dagoen jendea egon, gehiengoa elkartu gaitezke, eta gauzak aldatu. Hala ere, azken horrekin konspirazio batez ari naizela dirudi, konspirazio bat ez dela, argi dagoen arren. Eguneroko errutina bat bezain sinplea da emakumeak alardean ateratzea. Ez dago besterik. Ez dut ulertzen zergatik ikusten duten batzuek hain gauza arraroa. Emakumeak kaleetatik gizonekin batera musika jotzen ateratzea da azken finean. Eta hala ere, ez da onartzen. Nire iritziz, sen ona duen edozeinek ulertu eta onartu dezake/behar du.

Ondorioz, alardea berritu BEHAR dela uste dut, eta denok geure aldetik zertxobait jartzen badugu, esfortzu gutxirekin lortu dezakegula.

Manex Arana.

Haur bati Gabonetako magia zein den azaldu beharko banio ipuin bat kontatuko nioke. Izan ere, norberak Gabonetan sinesten baldin badu, errazagoa da besteei ikusioa eta poza transmititzea. Istorioa hau izango litzateke:

6 urteko neska txiki batek, bere aitari zera galdetu zion aita lanetik iritsi zenean:
- Aita, egia esatea nahi dut.
- Zer nahi duzu?
- Errege Magoak esititzen al da?

Aita izoztuta geratu zen galdera horren jatorri zein izan zitekeen jakin nahian. Orduan, alabak esan zuen:
- Eskolan, nire lagunek, gurasoak direla esaten dute, egia al da?

Aitak begiratu eta erantzun zion:
- Zuk zer uste duzu?
- Nik ez dakit, aita. Batzuetan bazaretela uste dut eta beste batzuetan ez. Alde batetik, uste dut zuek ez zaretela gezurrik esaten ez didazuelako. Baina beste alde batetik, nire lagunek esaten dute eta ez dakit zer pentsatu.
- Arrazoi duzu, gurasoek opariak zuhaitzaren azpian uzten ditugu opariak.

Neskatoak negarren esan zuen:
- Hori egia al da? Gezurra esan didazue?
- Ez, begira. Inoiz ez dizugu gezurrik esan. Erregeak esistitzen direlako -erantzun zuen aitak.
- Ba aita, ez dut ezer ere ulertzen.
- Eseri maitia. Eta entzun kontatuko dizudan istorio hau. Eta gero dena ulertuko duzu.

Neska bere aitaren ondoan eseri zen eta ipuina entzuten jarri zen:
- Jesus haurra jaio zenean, Hiru Errege Magoak Ekialdetik Belen atarira gerturatu ziren eta opariak eraman zizkioten Jesusi. Umea hain alai jarri zen non Meltxorrek esan zuen:
- Ikaragarria da ume bat pozik ikustea. Mundu guztiko umeei opariak eraman beharko genizkieke eta zeinen zoriontsu liratekeen ikusi.
- Oh, bai, ideia on bat da -esan zuen Gasparrek- baina oso zaila izango da. Ume asko dira munduan eta gu hiru besterik ez gara.

Momentu horretan Baltasarrek esan zuen:
- Arrazoia duzue. Eta gainera, oso nagusi gaude gu etxez etxe aritzeko.

Hiru Errege Magoak oso triste jarri ziren. Baina bat-batean, Jesus umeak irribarre egin zuen eta esan zien:
- Nirekin oso onak izan zaretenez, zuen nahia betetzen lagunduko dizuet. Zer da zehatz behar duzuena?
- Oh! -esan zuten harrituta- milioika paje beharko genituzke.
- Ez kezkatu. Ume bakoitzarentzat bi paje emango dizkizuet.
- Nola izango litzateke hori -galdetu zuten.
- Nork maite ditu gehien haurrak eta beraien nahiak ezagutzen dituzte?
- Jakina: gurasoek!

Erregeak Jesusek egindako baieztapenarekin bat zetozen. Handik aurrera, Jesusek gurasoak pajeak izango zirela agindu zuen Umeak gazteak ziren bitarteak opariak Hiru Errege Magoen partes izango zituztela. Eta nagusitzean gurasoek istorio hau kontatuko zietela. Modu honetara, ume nagusiek, gurasoei ere opariak eman ahal izango zizkieten.

Neskatoak Gabonen zentzua ulertu zuen eta oso pozik jarri zen, berak nagusitan pajea izan nahi zuela esanez.

Diana Rivero
Hirubide BHI

Nire txisteak

1. Soldadu batek galdetu dio beste bati:

- Zertan ari zara?

- Hemen! Emazteari idazten!

- Eta zergatik idazten duzu hain poliki?

- Nire emazteak ez dakielako azkar irakurtzen!

2. Gizon bat medikuarengana joan zen eta esan zion:

- Mediku jauna, arazo bata daukat! Nire puzkarrek ez dute usainik!

- Hori ez da posible!! Bota ezazu bat ora-intxe
bertan!

- PPPPPPPRRRRRR!!!!!!

- Hori oso larria da. Ebakuntza bat behar duzu!!

- Ipurdian?

- Ez, gizona, ez, sudurrean!

Egilea: Eneko Castejón

ZUZENDARI KASKARRA

Bazen behin, Ane izeneko 12 urteko neskato bat. Aneri izugarri gustatzen zitzaion futbolean aritzea. Baina arazo bat zuen. Eskolak futbol talde bat zeukan; arazoa zen lehen han jokatzen zuela, baina zuzendari berriaren erruz, neskek jolasteari utzi behar izan zioten, debekatu egin baitzuten. Behin eta berriz esan, esan eta esan, baina ez zuen ezertarako ere balio izaten, bere horretan jarraitzen zuen, zuzendariak ez zuen amore ematen: ezetz esaten zion.

Eskolatik ateratzen zenetan, Anek inbidia sentitzen zuen. Mutil guztiak jolasean aritzen ikusten zituen, eta bera, inbidiak jota.

Halako egun batean, ordea, egoera aldatu beharra zeukala bururatu zitzaion. Anek ideia bat proposatu zien bere gelako ikaskideei:

-Zer iruditzen zaizue zuzendariaren kontra jartzen bagara, eta neskok jolasteko eskubidea lortzen badugu? -denak ados jarri, eta eskola amaitzean, zuzendariari kexaka joan zitzaizkion. Ez zuen ezertarako ere balio izan; izan ere, zuzendariak, beti bezala, denen kontra jarraitzen zuen. Bi egunen buruan, entrenamenduaren egunean, taldeko kapitainari ideia bat bururatu zitzaion, ordea:

-Eta eskola bukatzen denean, entrenamendura joan ordez, bakoitza bere etxera badoa? Zuzendariari ez zaio batere gustatuko!

Denen erantzuna hau izan zen:
-Ideia bikaina!!!

Esan eta egin.

Hurrengo egunean, zuzendaria gelan agertu, eta amorruaren amorruz, hau esan zuen:

-Baina ez zaudete burutik sano! Zer dela-eta huts egin duzue entrenamentuan?

Eta hauek izan ziren ikasle guztien erantzunak:

-Neskek gure taldean jokatzeko eskubidea lortu arte, ez gara,

mutilok, ez entrenamenduetan, ez partiduetan agertuko.

Zuzendariak ez zuen beste aukerarik izan eta taldean neskak

onartu zituen handik aurrera.

Eta hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Toki Alaiko plazan.

Leire Etxabe. Toki Alai 1C

Ana eta dragoiaren kondaira

Bazen behin, neskato bat Ana izenekoa. Mondragoneko neskarik ederrena zen. Bere amarekin eta anaia gazteenarekin bizi zen. Aita, berriz, ez zen beraiekin bizi, aita zalduna baitzen eta beti zebilen abenturak bizitzen Mondragonetik hurrun. Anak aita bezalakoa izan nahi zuen: zaldun bat. Zaldun bat mundua ikusteko, mundua ezagutzeko, mundua ulertzeko… baina ezin zuen, neska baitzen eta gizonak bakarrik izan ahal ziren zaldunak. Ustez. Uste okerrean.

Egun batean, ordea, dena aldatu zen. Anak, herritik paseatzen ari zela, jendea korrika ikusi zuen. Momentu hartan, gizon batekin talka egin zuen:

-Eh! Zergatik ari zarete korrika? -galdetu zuen Anak.

-Utzi bakean! Dragoia hortxe da. Bertan da!

-Dragoi bat? Mondragonen? Burutik jota al zaudete?

Gizonak ez zion kasurik egin eta korrika, ihesi, jarraitu zuen.

-Dragoia, eh? -esan zuen.- Eta bisita bat egiten badiot? Etxera joan zen eta, inortxok ere ikusi gabe, aitaren ezpata zaharra hartu, eta dagoiaren bila abiatu zen. Handik gutxira, herritik kanpo zegoen. Erabaki irmoa zuen: dragoiaren bila joango zen. Gizonak esan zion bezala, dragoia Mondragoneko mendietan zegoen, eta hara abiatu zen.

Egunak eta egunak ibili zen, ea zerbait aurkitzen zuen: hortz edo dragoiaren aztarnaren bat, gorotzen arrastoren bat... baina ezer ere ez, ez zuen ezertxo ere aurkitu. Bat-batean, izugarrizko orroa entzun zen. Zalantza izpirik ez zegoen: dragoia hurbil zebilen. Piska bat ibili eta gero, kobazulo bat aurkitu zuen eta barruan sartu zen. Beste orro bat entzun zen; oraingoan, askoz ere beldurgarriagoa.

Kobazuloaren barruan zebilela, haize-zirimola beroa nabaritu zuen aurpegian eta gora begiratu zuen. Han zegoen, eserita, Mondragoneko dragoia!!! Anak ez zekien zer egin, eta geldirik geratu zen, zirkinik ere egin gabe. Dragoiak, berriz, orro egin zuen eta neska lurrera erori zen. Ezpata ere erori zitzaion, baina ez zegoen astirik horretan pentsatzeko, dragoiak kiskali egingo zuen.

-Hilko zaitut eta hoberena izango naiz. Ikusiko duzu! -esan zuen neskak.

Mugimendu azkar batez, dragoiaren sua saihestu zuen eta ezpata hartu zuen.

-Orain zer, dragoi? -Dragoia neska zapaltzen saiatu zen baina honek berriro saihestu zuen. Orduan, dragoiak ahoa ireki zuen eta Anak ezpata ahoan iltzatzeko aprobetxatu zuen. Alboetara begiratu zuen, ezkutatzeko leku bat bilatzen zuen bitartean, eta aurkitu zuen. Zulotxo batean sartu zen eta ikusi zituen dragoi txikiak, habi baten barruan.

-Oh! -esan zuen Anak.

Sartu zen zulotxotik begiratu zuen eta ikusi zuena ez zitzaion batere gustatu. Dragoi ama ezpata ahotik kentzen saiatzen ari zen. Momentu horretan, dragoitxoak negarrez hasi ziren. Ana, azkar batean, zulotxotik atera zen.

-Zaude! -Dragoia geldirik geratu zen.

-Dragoitxoak ondo daude… -Arnasa hartu zuen.

-Badakit ez naizela ondo portatu zurekin. -Zulotxora begiratu zuen.

-Orain badakit zergatik zauden horrela. Utzi…

Anak haren eskua dragoiaren ahora hurbildu zuen. Baina dragoiak, beldurraren beldurrez, ez zion utzi.

-Lasai -esan zuen Anak, irribarre batekin.Begiak itxi eta bere eskuineko eskua dragoiaren buruan jarri zuen, eta beste eskuarekin, ezpata ahotik kendu zion.

-Denei esango diet hilda zaudela. Denek zu bakean uzteko, eta zu lasai bizitzeko. -Behera begiratu zuen.

-Zaldun batek hil zaituela esango dut. Ez dute sinetsiko emakume batek dragoi bat hil duenik.

Mondragonerako bidea hartu zuen; baina, orduan, dragoiak hortz bat kendu zuen eta Anari eman zion: dragoia “hil” zuelako froga izango zen.

-Eskerrik asko dragoi!

Korrika berarengana hurbildu, eta burua laztandu zion.

Lucía Valdés, DBH 1D

VIEUX BOUCAU

Vieux Boucau Landasetan, Frantzian, dagoen herri bat da. Txikia nintzenetik urtero joaten naiz nire familiarekin edo batzuetan Anarekin. Han nire haurtzaro guztia igaro dut; karramarroak hartzen Anarekin, txirrindan ibiltzen nire anaiekin, pizzak jaten aitarekin, hondartzara joaten amarekin … Handik, etxean egongo banintz bezala ibiltzen naiz, hango dena ezagutzen dut eta. Noizbait han bizitzera joatea nahiko nuke, oso garrantzitsua baita niretzat.

Vieux Boucau ez da Irun bezain handia baina gauza asko daude egiteko. Hondartza erraldoi bat dago. Udan joaten naizenean, oso gustoko dut hondartzan erlaxatuta egotea, itsasoaren soinu atsegina eta txoriak abesten entzutea. Herri honek laku ilun bat dauka, irla ñimiño baten inguruan. Normalean, lakua zeharkatzen dugu piragua batean, baina gero izugarrizko babak ditut eskuetan.

Nire ustez herri bat izateko oso bizia da, hau da, herrira joaten baldin bazara jende asko dago. Etxeak ikaragarri ederrak dira, oso koloretsuak dira, gainera batzuk hondartzaren ondoan daude. Hango jendeak konfidantza asko ematen du eta oso leialak dira.

Nire ustez benetan leku lasai eta adiskidetsua da. Honengatik eta mila arrazoi gehiagorengatik maite dut leku hau.

Irune Herrero (DBH 2)

TEKNOLOGIA ETA GAZTEAK

Teknologiaren erabilera eta abusua oso azkar ezarri da gure artean azken urteotan, are gehiago gazteengan. Gaur egun teknologia ezinbestekoa da, zer izango litzateke gurea teknologiarik ez balego? Seguru asko ez zen ezer gertatuko, ez baikenuen ezagutuko. Baina honezkero kentzen badigute, ez al da hala?

Neurri batean, teknologia oso lagungarria izango zaigu, batez ere Interneten zerbait kontsultatu behar badugu. Noizean behin bideo-jokoren batean jolasteak ere ez digu kalterik egingo; izan ere, batzuetan ondo dago errealitatetik kentzea. Gainera, teknologia oso lagungarria izango da norbaitekin komunikatzeko. Gaur egun, komunikazio-aplikazio asko ditugu, eta horiek doakoak dira (edo gehienak), hala nola WhatsApp, Instagram edo Snapchat. Horietan, nahi duzun pertsonarekin txateatu ahal izango duzu, edo bideo-deia ere egin ahal izango duzu, beste gauza askoren artean.

Beraz, ikus dezakegun bezala, teknologia ona da, betiere adikzio bihurtzen ez bada. Teknologiaren mundu honekiko mendekotasun handia duten helduak egon arren, gu, gazteok, nabarmentzen gara, gu izan baikara mundu hori ondoan dugula hazi garenak, eta hala egiten jarraituko dugu. Jan egin behar dugunean teknologiarekin harremanetan egotea teknologiari ematen zaion abusuaren adibide argi bat da. Etxean ordenagailuarekin jolasten geratzea, kalera irten beharrean, beste bat da. Eta ez dezagun ahaztu Internet zein txarra izan daitekeen, guztiz gehiago nerabeentzako, ez baitakigu zein arriskutsua den Interneten ezagutzen dugun jendearekin hitz egitea, agian gezurretan ari zaigun jendearekin. Ez dakigu benetan esaten dutenak diren edo erabat desberdina den beste pertsona bat.

Internetekiko mendekotasuna izatea ere oso arriskutsua izan daiteke, batez ere zure osasun mentalerako. Zure familiari eta inguruko jendeari ere eragingo die. Izan dira etxetik irteteari utzi diotenak, edo familiarekin eta lagunekin hitz egiteari utzi diotenak, egunez egun pantaila baten aurrean egon ahal izateko bakarrik.

Orduan, merezi du horrela egotea? Ez, ezta? Nire ustez, denak du bere momentua. Ez da beharrezkoa egun osoa pantaila baten aurrean egotea, zure bizitzan askoz gauza politagoak daude egiteko. Egun batean kontsolarekin jolastu nahi duzula? Bada, aurrera, inork ez dizu eragotziko, hasieran esan dudan bezala, noizean behin dibertitzea ondo dago, adikzio bihurtzen ez den bitartean. Irten zaitez zure familia eta lagunekin kalera eta gozatu, teknologia gabe ere ondo egon gaitezke eta!

Elena Jaramillo (DBH 4)

“Influecer-ek” benetan influentziatzen dute?

Azken urte hauetan “influencer” deritzon figura jaio da. Influencer bat gai jakin baten inguruan nolabaiteko sinesgarritasuna duen pertsona bat da, eta sare sozialetan duen presentziagatik eta eraginagatik marka baterako interesgarri bihur daiteke. Jende askok pertsona hauek kritikatu dituzte, gazteengan izan dezaketen influentziarengatik, horrek dakartzan gauza on eta txarrekin.

Galdera hau da: eragin txarra izan dezakete gazteengan? Eta erantzuna hau da : bere esku dago. Gazte horiek eragin batek eta sare sozialek oro har transmititzen duten guztia zalantzan jartzeko izan dezaketen gaitasunaren araberakoa da, batez ere. Ezin dugu ukatu gazteek sareetan eta “influencer”-etan gustuak eta zaletasunak partekatzeko modu bat aurkitzen dutela, eta askorentzat beren autoestimua berresteko edota adinari dagozkion esperientziak eta bizipenak partekatzeko aurkitzeko modu bat dela. Nahiz eta beste askorentzat “influencer”- ek guztiz kontrakoa eragin dezaketen, konparazioak adibidez, eta beste hainbat trastorno, ederrago ikusteko asmoz.

Printzipioz, esan behar, “influencer-ak” nahiko gauza berria direla, sare sozialei eta horiek jendean duten eraginari esker sortu direla, beraz, ez dago legerik zer egin dezaketen eta zer egin ezin duten esateko. Nire ustez, “influencer-en” araberakoa da dena, horietako askok berdintasuna eta autoestimua sustatzen saiatzen dira, eta denok desberdinak garela baina garen bezala maitatu behar garela diote. Baina beste pertsona batzuk ere aurki ditzakezu, guztiz kontrakoak, pertsonak epaitzen dituztenak, eta edertasun-kanon horietan sartzen ez diren gazteei aurreiritzi asko sortzen dizkietenak.

Oso garrantzitsua da, halaber, “influencer”-ek argitzea beren bizitza ez dela beti sare sozialetan erakusten den bezalakoa; izan ere, gazte askok “influencer”-en profiletan ikusten duten guztia sinets dezakete, eta depresio edo nahasmenduren batean erori, “influencer”-en bizitza idilikoa dela eta beraiena txarra dela pentsatuz.

Hau guztia dela eta, egia da pertsona batzuek ekintza txarrak edo adikzioak susta ditzaketela, baina nik uste dut ez genukeela “influencer”-en figura gauza txar gisa sailkatu behar, horietako askok oso arrazoi garrantzitsuengatik borrokatzen baitute, mundua hobetzen saiatzen direlako.

Lucia Miranda (DBH 4)

ARTEA

Hezkuntzan Duen Lekua

21.mendean gaudela, nerabeen eta ikasleen artean gehienbat, asko hitz egiten da hezkuntzari buruz.Egia da, hezkuntza eskubide bat dela eta eskertuta egon behar garela, baina honen antolaketa okerra dela esan behar da.
Ikaslea naizen aldetik, eta jakinda internet gehienon esku dagoela hitz egingo dut.

Gaur egun, interneten (google, Youtube, Sare sozialetan edota abesti eta pelikuletan) eskolan baino askoz gehiago ikas dezakegu, eta horregatik, guri interesatzen zaiguna bilatzen dugu, eta ez diguna atentzioa deitzen , hor uzten degu, baliteke beste momentu batean, aurrerago, gai hori interesgarria iruditzea.

Nire ustez, etorkizun batean bizitzen jakiteko ikasgaiak egon behako lirateke, besteguztia inteneten bidez bila dezakegulako. Eta horretarako hainbat adibide izendatuko ditut:

- Gelan, esaldiak sintetikoki aztertzeko ikasgai bat dago, baina ez dago ikasgai bat gure soldata eta etxea kudeatzeko.

- Gelan, ez didate errenta deklarazioa nola egin behar den irakasten, ezta nola aurkeztulan aurkezpen batean, baina bai izen sintagmako osagai guztiak buruz ikasten.

- Gelan, inork ez dit erakusten etxe bat erosteko modua, baina, munduko ibaiak ikasi behar ditut.

- Gelan, ez dut nire sentimenduak adierazteko modua ikasi, ezta nire irudimena zabaltzeko modua, baina taula periodikoaren talde eta elementu guztiak ikasi behar ditut

- Gelan, ez dago autoestima eta buru osasun klaserik, baina Matematikan ematen ditugun ekuazioak buruz ikasi behar dira.

- Gelan, ez ditugu arrazakeria, matxismoa eta homofobiaren kontrako klaseak ematen, baina katetoa eta hipotenusa kalkulatzen bikaina naiz.

- Gelan, biriken zuperketa egiten ez digute irakasten, ondokoa hiltzeko zorian egoten bada, baina Latin izeneko ikasgaia dago, Julio Cesarrekin bizitzera joateko asmoa burura etortzen bazait.

- Gelan ez digute irakasten gizartea hobetzeko modua, baina geroago ahaztuko ditugun pila-pila gauza buruz ikastera behartzen gaituzte.

Laburbilduz, uste dut hezkuntzak hobekuntzak batzuk egin behar dituela, etorkizunerako benetan behar dugun materia sakondu, debateekin, elkarrizketekin,... Prozesu motela izango da, baina guk. gaurko ikasleok, helduak egiterakoan, konpontzeko hobeak izango gara, ezta?

Lucia Blanco
4A

Agenda 2030 proiektuarekin lotuta, aurtengo ikasturtean beste proiektu bat jarri dugu martxan 4.mailako Plastikako ikasgaiko ikasleekin.

Aurten “BASOA” gaian oinarritu da Agenda 2030 proiektua eta gure saioetan baso bat sortzea erabaki dugu. Ikasle bakoitzak bere zuhaitza diseinatu du eta bere zuhaitzaren gainean bere bizilekua izango den etxea ere diseinatu du. Modu honetan, basoak bizidun askoren bizileku direla irudikatu nahi izan dugu.

Gure mundua eta gure munduko basoen garrantzia nolakoa den landu dugu saio hauetan eta era berean, gaia eta artea lotu ditugu, beste behin, artearen mugak mugagabeak direla ikussiaz!
Ikasle bakoitzaren lana, munduko zuhaitza bakoitza eta munduko baso bakoitza, BAKARRAK ETA ERREPIKAEZINAK DIRA! ZAINDU DITZAGUN!

Proiektua martxan dago momentu honetan eta hurrengo bi asteetan bukatuko dugu. Gure eskolako sarreran egongo da ikusgai.

TXINGUDI BHIko Plastikako 4.mailako ikasleak.



Euskaraz bizi


SOLAS - JOLAS

EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA


GU ERE BERTSOTAN

ITZULPEN ZERBITZUA

LOIDI BEKA

LANNAHI

GURASOAK ETA SEME-ALABAK

MERKATARIENTZAT MATERIALA

UDAL EUSKALTEGIAREN WEB ORRIA


ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ

KALEAN BAI

Diru-laguntzak

- Euskara-ikasteko
- Gurasoentzako laguntzak
- Euskara sustatzeko laguntzak
- Ikastetxeentzako laguntzak

Zer behar duzu?

- Euskara ikasi
- Euskara erabili:
  - Familian
  - Ikastetxeetan
  - Aisian
  - Kirolean
  - Lan munduan
  - Entitate eta klubetan
- Euskara aberastu
- Euskararen aurkibidea

Euskara Irunen

Datuak

- Datu soziolinguistikoak
- Hiritarren eskubideak, Udal ordenantza
- Euskararen aurkibidea
- Kale izendegia
- Irungo leku-izenak

Baliabideak

- Baliabideak
- Software-a euskaraz
- Agiri ereduak
- Produktuen katalogoak

Gaurkotasuna

- Euskaraz eskualdean
- IRUNERO aldizkaria irakur ezazu

berri guztiak

Euskararen agenda

Martxoa 2021

A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	26	26	27	28
29	30	31				

hurrengo ekitaldiak

LAUKIZ LAUKI IRUNEN BARRENA

Irungo leku-izenak

RSS - Gaurkotasuna